



Larrabetzu.eus

## LARRABETZUKO UDA PROGRAMAK 2018

### PROGRAMAK:

#### **LARRABETZUKO UDALEKU IREKIAK:**

Larrabetzuko Udalekuak 4-16 urte bitarteko umeentzako zuzenduta dagoz. Hauek, bi tadeetan banatuko dira adinaren arabera. Talde bati Gaztelu deituko zaio eta besteri Gaztelumendi.

**GAZTELU (2014-2012)** urteen artean jaiotakoak eta **GAZTELUMENDI (2011-2002)** urteen artean jaiotakoak.

Umeentzako programa hauek udal eskoletan garatuko dira eta, bertan, jokoak, tailerrak eta jarduera dibertigarriak egingo dira; 2 txango egingo dira. Bat herrian eta bestea herritik kanpo.

Gaztelu eta Gaztelumendi ordutegi bera eukiko dabe **ekainaren 25etik uztailaren 20era arte**, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Txango egunean 10:00etatik 18:00etara.

#### **ABENTURA UDALEKU ITXIAK:**

Abentura Udalekuak 10-16 urte bitarteko gazteentzako zuzenduta dagoz.

Hauetan, **(2008-2002) urteen artean jaiotakoak hartu ahal izango dabe parte**. 5 egunetako egonaldia egingo dabe Aiegiko Iratxe kanpian eta bertan abenturazko ekintza ezberdinak burutuko dabez.

Udaleku hauek, **uztailaren 2tik 6ra izango dira**.

### IZENA EMOTEA:

1- Larrabetzuko UDA programan parte hartzeko, **2018ko maiatzaren 7tik 25era emon beharko da izena Angulerin**, biak barne. Izena emoteagaz batera umearen **Osakidetza** txartelaren eta **kontu korronte** zenbakia agertzen den **agiriaren** kopia entregatu beharko dira. Ezinbestekoa da hauek, izena ematen den momentuan entregatzea.

Lekuak mugatuta dagoz eta, horrenbestez, honako alderdi honeek hartuko dira kontuan:

- Larrabetzun erroldatuta egotea.
- Ezarritako epean emotea izena.
- Aurreko udako kanpainan izena emon badabe, gitxienez saioen erdira joan izana (baldintza hau bete ezean, izena emon ahal izango dabe, baina beti be zerrendako azkenak izango dirala kontuan hartuta, zozketea egin arren).

2- Izena emoteko epea amaitu ostean eskaerak eskainitako lekuak baino gehiago badira, **zozketea egingo da (\*\*\*)**. **2018ko maiatzaren 30ean** (eguztana), **17:00etan, Anguleri Kultur Etxean**.

Leku barik dagozan pertsonak itxaron-zerrendan geratuko dira eta, horreen arteko aukeraketea, zozketa bidez egingo da.

Onartutakoen **behin-behineko** zerrendea Anguleri Kultur Etxean eta Ludotekan azalduko da jentearrean, **ekainaren 6tik aurrera**.

**3-** Aldaketak, **Ekainaren 6tik 12ra egin ahal izango dira**, Anguleri Kultur Etxean. DATA HONEN OSTEAN EZ DA ALDAKETARIK ONARTUKO ETA EZ DA DIRURIK BUELTATUKO INDARREZKO ARRAZOI BAT EZ BADAGO.

**PREZIOAK:**

	<b>GAZTELU eta GAZTELUMENDI</b>	
Aste 1	Erroldatuak: 50,00€	Ez erroldatuak: 75.00€
2 aste	Erroldatuak: 75,00€	Ez erroldatuak: 95.00€
3 aste	Erroldatuak: 95,00€	Ez erroldatuak: 120.00€
4 aste	Erroldatuak: 110,00€	Ez erroldatuak: 140.00€

  

<b>ABENTURA UDALEKUAK</b>	<b>Erroldatuak</b>	<b>Ez erroldatuak</b>
Uztailaren 2tik 6ra	200€	290€

**DESKONTUAK:**

- Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGIa) edo beste dirulaguntza bat jasotzen daberen familien kasuan, % 50eko deskontua aplikauko jake ume bakotxari. (justifikantea emon beharko da)
- 3 seme-alabatik gorako familien kasuan (3rak programa ezberdinetan parte hartu ezker), %25eko deskontua aplikauko jake ume bakotxari. (justifikantea emon beharko da)
- Morgan erroldatuta egon arren Larrabetzuko eskolan ikasten daberen umeek Larrabetzun erroldatuak bezala ordainduko dabe.

**IZENA EMONDAKOAN:**

Argibide-batzarra egingo da, programen zehaztasunak azaldu eta ordutegia zehazteko; modu berean, ganetik azalduko da barruko araubidea.

Kasu honetan, batzarrak **ekainaren 19an (martitzenean)** egingo dira, Angulerin.

- **Gaztelu eta Gaztelumendi programen ingurukoa: 19:00etan.**
- **Abentura udalekuen ingurukoa: 19:30ean.**

**EDOZEIN DUDA EDO KONTSULTATARAKO ARRETA: 644213235 edo larrabetzukukubel@gmail.com**

(\*\*\*) Familiaren bateko kide batek baino gehiagok hartzen badau parte, familia horretako kideren batek lekua eskuratzekotan, izena emonda daukien ganerako neba-arrebek be automatikoki eskuratuko dabe partaideen zerrendan sartzeko aukerea.

**Interesdunak izena emon badau, oinarri honeek guztiz onartzen dauzala ulertuko da.**



Larrabetzu.eus

## PROGRAMAS UDA DE VERANO EN LARRABETZU 2018

### PARTICIPANTES Y PROGRAMAS:

#### **CAMPAMENTOS ABIERTOS DE LARRABETZU:**

Los campamentos abiertos de Larrabetzu van dirigidos a niñas y niños de entre 4-9 años que se dividirán en dos grupos según la edad. El grupo de los más pequeños se llamará Gaztelu y el grupo de los más mayores se llamará Gaztelumendi.

Este programa se desarrollará en las instalaciones de las escuelas municipales, en el que habrá muchos juegos, talleres y actividades. Se realizarán dos excursiones. Una en el pueblo y otra, fuera.

**GAZTELU** (Nacidas y nacidos entre el **2014-2012**) y **GAZTELUMENDI** (Nacidas y nacidos entre el **2011-2002**)

Ambos programas se llevarán a cabo del **25 de junio al 20 de julio** y tendrán el mismo horario de 10:00 a 13:00. El horario de la excursión será de 10:00 a 18:00.

#### **CAMPAMENTOS CERRADOS DE AVENTURA:**

Dirigido a jóvenes de 10-16 años.

**CAMPAMENTOS DE AVENTURA (Nacidas y nacidos entre el 2008-2002)** Campamentos de 5 días en el camping *Iratxe* de Aiegi. Se realizarán entre otras, actividades de aventura.

Se llevarán a cabo **del 2 al 6 de julio**.

### INSCRIPCIONES:

**1-**Para participar en el Programa UDA de Larrabetzu las **inscripciones** deberán realizarse del **7 al 25 de mayo del 2018**, ambos inclusive en Anguleri kultur etxea. Junto a la ficha de inscripción será obligatorio entregar la fotocopia de la tarjeta de **Osakidetza** de la niña o del niño y copia donde aparezca el **número de cuenta** donde poder hacer el cargo.

Las plazas son limitadas por lo que se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

- Estar empadronado en Larrabetzu
- Hacer la inscripción en el plazo establecido.
- No superar el 50 % de faltas de asistencia en la anterior campaña de verano (se podrán inscribir pero siempre teniendo en cuenta que serán los últimos en las listas siempre, aun realizándose sorteo)

**2-**Habiendo finalizado el Plazo de inscripción no se admitirán nuevas inscripciones. Si la demanda fuera superior a la oferta de plazas se realizará el **sorteo (\*\*\*)** de las plazas el **30 de mayo (miércoles) del 2018 a las 17:00 en el Aula de la Casa de Cultura Anguleri**.

Las personas que queden sin plaza, pasarán a formar parte de la lista de espera, que también se realizará mediante el mismo sorteo.

En caso de no poder acudir el día del sorteo, no supondrá ningún problema para poder optar a la plaza.

La **lista provisional** de admitidos se expondrá en la Casa de Cultura Anguleri, Ludoteca al público, a partir del día **6 de junio**.

**3-Del 6 al 12 de junio** será el plazo para hacer cualquier cambio o desapuntarse. Estos cambios se realizarán en Anguleri kultur etxea.

DESPUES DE ESTA FECHA, NO SE ADMITIRAN CAMBIOS Y EN CASO DE BAJAS NO SE ABONARAN LAS CUOTAS PAGADAS, A NO SER DEBIDAS A CAUSAS MAYORES QUE SERAN VALORADAS.

#### **TARIFAS:**

	<b>GAZTELU ETA GAZTELUMENDI</b>	
1 semana	Emp: 50.00€	No emp.: 75.00€
2 semanas	Emp: 75.00€	No emp.: 95.00€
3 semanas	Emp: 95.00€	No emp.: 120.00€
4 semanas	Emp: 110.00€	No emp.: 140.00€

<b>CAMPAMENTOS DE AVENTURA</b>	<b>Emp.</b>	<b>No emp.</b>
Del 3 al 7 de julio	200.00€	290.00€

#### **DESCUENTOS:**

- En caso de familias que perciban la RGI u otro tipo de ayuda, se aplicará un 50% a cada niña o niño. (Obligatorio entregar el justificante).
- Para familias con 3 o más de tres niñas o niños que participen en los diferentes programas, se aplicará un 25% de descuento a cada uno. (Obligatorio entregar el justificante).
- En el caso de niñas o niños empadronados en Morga pero que estudian en la escuela de Larrabetzu, se les aplicará la cuota de empadronados.

#### **UNA VEZ FORMALIZADA LA INSCRIPCIÓN:**

Se realizará una reunión informativa donde se dará mayor detalle y horario del los programas y se repasara la normativa interna.

En este caso las reuniones se celebraran el **19 de Junio** en Anguleri.

- Sobre **Gaztelu y Gaztelumendi** a las **19:00**
- Sobre los **campamentos de aventura** a las **19:30**

**PARA CUALQUIER DUDA O MÁS INFORMACIÓN: 644213235 O [larrabetzukurukubel@gmail.com](mailto:larrabetzukurukubel@gmail.com)**

(\*\*\*) En caso de haber familias en las que vayan a participar más de un miembro, hemos considerado la problemática que supondría el que uno de ellos se quedase sin plaza. Por lo que si uno de los miembros consigue plaza en el sorteo automáticamente, el resto de hermanos/as apuntados/as quedará dentro de la lista de participantes.

**El inscribir a cualquier interesado/a supone la aceptación íntegra de estas bases.**